



BERRIOZARKO JAIETAKO KARTEL LEHIAKETA 2015eko OINARRIAK

1. Lehiaketan Berriozarko jaiekin lotutako gaiak aurkeztuko dira. Egile bakoitzak, gehienez, 3 lan aurkeztuko ditu. Lanak jatorrizkoak izanen dira.

2. **2 kategoria** izanen dira:
Haurrak: 14 urte baino gazteagoak
Helduak: 15 urte baino zaharragoak

3. **Neurria:** *Helduen lanak: 30 x 42 cm, zutikako formatuan.*
Lanak euskarri gogorrean aurkeztuko dira (luma-kartoia edo antzekoa)
Haurren lanak: 15 x 21 cm, zutikako formatuan.

4. Kartelen **estiloa** eta **teknika** libreak dira. Irabazleak multimedia-teknika erabiliz gero, Udalak lan irabazlearen kopia CD batean ematea eskatu ahalko dio.

5. Lan guztietan honako testua idatziko da:
Fiestas de Berriozar del 26 al 30 de agosto de 2015
Berriozarko Jaiak 2015eko abuztuaren 26tik 30era.

Lanak jatorrizkoak eta argitaratugabeak izanen dira.
Lehiaketatik kanpo geratuko dira baldintza horiek betetzen ez dituzten kartelak.

6. Kartelak Berriozarko **Udaletxeko Auzo-Bulegoan** aurkeztuko dira (Euskal Herria plaza, 1 - 31013 Berriozar) **maiatzaren 15etik ekainaren 5era, goizeko 8etatik 14etara.**

7. **Kartelak gutunazal itxi batean aurkeztuko dira** egilearen sinadura-rik gabe eta aukeratutako izenburua idatzita. Beste gutunazal batean, itxita eta izenburu bera idatzita, egilearen datuak sartuko dira: izen-abizenak, nortasun agiriaren zenbakia, adina, helbidea, herria eta telefonoa; baita aurkeztutako lanaren esanahiari eta motibazioari buruzko azalpen laburra ere.

8. **Kartelaren izenburua** gaztelaniaz, euskaraz edo bi eletan aurkeztuko da. Hizkuntza bakarra aukeratzen bada, Berriozarko Udalak itzulpena egiteko eskubidea izanen du.

9. **Epaimahaia** Kultur Koordinakundeko kideek eta langile teknikoek osatuko dute. Koordinakundeburua izanen da epaimahaiburua. Kultur Teknikariak idazkari lanak egingen ditu (hitza izanen du eta botorik ez)
Epaimahaiaren erabakia apelaezina izanen da eta ohiko hedabideen bitartez jakinaraziko da.

10. **Sariak:** helduen kategorian sariak eskudiruzko ordainketak izanen dira (izendun txekuek, dagokien PFEZ kenduta). Haurren kategorian, sariak herriko dendetan trukatzeko baleak izanen dira.
Helduak: 600 euro
Helduak (berriozartarrak): 300 euro
Haurrak: 150 euro

11. **Berriozarko Udala izanen da saritutako kartelen jabea.** Berriozarko Udalak kartel sarituen nahi adina erreprodukzio litografiko edo bestelakoak egin ahalko ditu, nonahi erabiltzeko, eta egileek ez dute inolako erreklamaziorik egiterik izanen.

12. Berriozarko Udalak **erakusketa antolatuko du abuztuaren 10etik 25era** parte hartutako kartel guztiekin edo horietako batzuekin. Kartelak aipatu erakusketa bukatu eta hilabeteko epean itzuliko dira.

13. **Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.** Arau hauetan aurreikusi gabeko edozein zalantza edo gorabehera epaimahaiak ebartziko du.

2014ko lehen saria.
Paula Medina